

LIBURUAK

OMAECHEVARRIA ( Fr. Ignacio): Euskera. Un poco de Gramática y algo de Morfología del Verbo vasco. Ed. Icharopena. Zarauz (1959). 320 or.

Ba-du liburu onek, azalak dion baiño mami mardulagorik. Iru ataletan bereizia dago: aditz-morfologia, aditz-paradigmak eta idazki-sailla.

Leenengo atalean, morfologian (7-59 or.), euskal-aditzaren joskera ta berezitasunak zeatz eta zientifikuki aztertzen ditu Aita Omae-etxebarriak. Ba-dakigu zenbait teoria berri ere ba-direna, ta egilleak gogorik leiantsuena leen-biziko atal ontan jarri duena; onegatik, ziur nago, ba-da emen izkuntzalari ikasientzat ere jakingarririk. Ta auentzat izango da batez ere atal au.

Bigarren atalean datoz aditz-paradigmak (61-142 or.). Paradigma aurretik adizki guziak banaka-banaka azterkatzen ditu egilleak. Paradigma-sailla onela banatzen da: 11 intransitibukoak, 22 transitibuari dagozkionak, ta 6 paradigmek zabaltzen dituzte aditz-sintetikuaren jokaerak, ibilli ta eraman eredu direla, ta azkenik beste bietan jokutzen dira erabilli, ekarri, jakin, euki, ion, eritzi, egon ta joan aditzen erarik nagusienak. Guzira 41 paradigma dira, ba. Aditza buruz ez dakitenentzat ere bada arkibide oso egoki bat. Arkibide au eskuetan duelarik, edonork topa dezake edozein adizkera. Atal au bai onuragarri oinbeste idazle gazteontzat. Tamalez, gipuzkera bakarrik dute paradigma auek.

Iruugarren atalak liburu erdia daramaki (142-320 or.). Aita Villasante'k eratu du idazki-bilduma au. Ogetamasei idazle dira guzira: 12 Bidasoz andikoak, 16 gipuzkoarrak ta 8 bizkaitarrak. Bilduma au aditzari begira egin bada ere, bestetarako ere balia gaitzke, eskoletan euskera irakatsi ta irakurgai egokiak ikasleeri eskuratzeko, alegia. Idazle bakoitzari bere bizitz-laburpen bat ezarri zaio; onela liburua-zear, euskal literaturaren kondairari